

## **GADEko bigarren promozioak irailaren 14an hasi ditu klaseak**

2009/09/15

2008-2009 ikasturtean hasi zen Mondragon Unibertsitatea Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokitutako tituluak eskaintzen, Euskal Herriko lehen unibertsitatea izanik.

Ezaugarri horrek Mondragon Unibertsitatearen izaera berritzailea eta aitzindaria uzten du agerian, zortzi urte baino gehiago baitaramatza Mendeberry proiektua izeneko hezkuntza-eredua jorratzen. Aipatutako proiektuak erabat betetzen ditu Europar Eremuaren helburuak, eta hezkuntzaren bikaintasuna lortzea du helburu. Unibertsitate honen apusturik garrantzitsuenetakoa da, ezbairik gabe. Izan ere, enpresetan eta erakundeetan sortzen ari diren behar eta aldaketei erantzun nahi die Mondragon Unibertsitateak, eta bertako arduradun gorenen iritziz, horretarako ezinbestekoa zen hezkuntza-konzeptua errotik aldatzea. Horretan ere MONDRAGON UNIBERTSITATEAK aurrea hartu zion goi-hezkuntzaren europar erronkari.

Ondorioz, egun, Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokitutako 6 titulutan, bigarren promozioekin lanean ari da. Besteak-beste, Oñati eta Bidasoako campusetan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan gradua ikasten ari diren ikasleen bigarren promozioak, irailaren 14an hasi ditu eskolak.

